



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

Espediente zk.:	2026KHTZ0012
Azalpena:	"Geuretik sortua" proiektuaren barruan sortutako hainbat emanaldi Astigarragan eskaintzeko.

ASTIGARRAKO UDALAREN ETA UDALBILTZA PARTZUERGOAREN ARTEKO HITZARMENA, DIRULAGUNTZA IZENDUNA ARAUTZEKO

Astigarragan, 2026ko maiatzean.

PARTE HARTZEN DUTE

Alde batetik, Xabier Urdangarin Lasa, Astigarragako alkatea, Astigarragako Udalaren izenean eta ordezkartzen.

Bestetik, Haritz Alberdi Arrillaga jauna (72444234F), Q2000578A IFK zenbakia duen Udalbiltza Partzuergoaren izenean, bertako lehendakia den heinean.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa eta kasuan kasuko ordezkartza aitortzen diote elkarri eta eragin horretarako ondokoa

ADIERAZTEN DUTE

1.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.2 artikulua xedatzen du udalerriek, besteak beste, eskumen propio gisa baliatzen dutela kultura sustatzea. Eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean 17. artikulua, berriz, eskumen propio hauek aitortzen dizkie udalerriek, besteak beste, Kultura eta kultur jarduerak antolatzea eta sustatzea.

2.- Udalbiltza Partzuergoak 2021ean "Geuretik Sortuak" proiektua martxan jarri zuen, Euskadiko, Nafarroako eta Iparraldeko Herriko sorkuntzari bultzada eta plaza emateko asmoz.

Hiru ardatz nagusi ditu proiektuak: alde batetik, euskarazko kultura babestu eta sustatzea; bestetik, herri kontakizuna garatzea; eta azkenik, zirkuitu kultural sendo eta aberatsa osatzea.

Geuretik Sortuak proiektuko edizio bakoitzak bi urte irauten du: lehengoan, lau diziplinako artistak (literatura, komikigintza, zinemagintza eta antzerkigintza) hiru lurraldeetako hainbat

ESKUDC532ab1-37ff-4c5c-a60d-ab51aec0bbe2



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

txokotan murgiltzen dira haien kontakizunak sortzeko, eta bigarren urtean, zirkuitu nazionalaren bidez aurkezten dira sortutako lanak.

Euskaraz izango diren artelanak herri bakoitzaren idiosinkrasiari lotuta daude, eta hori bermatzeko, kulturgileek beraiena ez den herrian hiru asteko egonaldiak egiten dituzte, hura ezagutu eta hasierako proposamena esleitutako tokira egokitzeko.

3.- 2026an Geuretik Sortuak proiektuaren baitan sortutako hainbat kultur egitasmo ezagutzera ematea: alde batetik, Astigarragan bertan sortutako Izeba Txirrita (Zelako kultur ideiak konpainia) lanaren estreinaldia; bestalde, Frankopoleon (KulturarteCo konpainia), Kolapsoa (Jon Ander Urresti eta Matxalen de Pedro) eta Promesarik txikiena (Infinitudrama konpainia) antzezlanak; azkenik, Nahia Arantzamendiren "Kafe asko eta ona" eta Eneritz Ibarrenaren "Begi hütsez ezin ikusi" liburuen aurkezpenak eta, horretarako, Erribera kulturgunean jendaurreko emanaldiak eskainiko dira. Horrez gain, "Lau haizeetara" film laburren emanaldia eta edizioaren baitan sortutako uzta biltzen duen erakusketa ere jasoko ditu Astigarragak.

4.- Astigarragako Udalak onartuta duela indarrean duen dirulaguntzen plan estrategikoan dirulaguntza izendunen lerro hau jasotzen dela:

- *Pertsona hartzaileak:* Udalbiltza Partzuergoa
- *Ematearen modalitatea:* Izenduna.
- *Helburuak:* Partzuergoak antolatu duen "Geuretik sortuak" proiektuen baitako emanaldietarako dirulaguntza ematea
- *Laguntzaren zenbatekoa:* 15.550 €
- *Aurrekontuzko aplikazioa:* 1 0100.421.01.942.00 2026 (1745)

5.- Dirulaguntza hau bideratzeko Udalak 15.550 € ditu udal-aurrekontuko kontu-sail honetan: 1 0100.421.01.942.00 2026 (1745)

6.- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22. eta 28. artikuluekin eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzarekin bat etorrira, zuzenean ematen diren dirulaguntzen erabakiak hitzarmen bidez hartu behar direla; eta ezinbestekoa dela araudi horietan xedatutakoa kontuan hartzea.

Ondorioz, bi aldeek erabaki dute hitzarmen hau onartzea akordio hauekin:

AKORDIOAK

LEHENEA.- Hitzarmen honen xedea da Udalbiltza Partzuergoari, 2026an "Geuretik sortuak" proiekturako Astigarragako Udalak onartutako dirulaguntza izenduna arautzea.

ESKUDCS32ab1-37ff-4c5c-a60d-ab51aec0bbe2



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

BIGARRENA.- Astigarragako Udalak 15.550€-ko dirulaguntza izenduna emango dio 2026an Udalbiltza Partzuergoari, "Geuretik Sortuak" proiektuaren baitan sortutako lanak jendaurrean eskaintzeko eta zehazki diruz lagunduko ditu: antzerkian, Izeba Txirrita (Zelako kultur ideiak), Frankopoleon (KulturarteCo konpainia), Kolapsoa (Jon Ander Urresti eta Matxalen de Pedro) eta Promesarik txikiena (Infinitudrama konpainia) antzezlanak; literaturan, Nahia Arantzamendiren "Kafe asko eta ona" ipuinaren aurkezpena; komikigintzan, Eneritz Ibarraren "Begi hütsez ezin ikusi" komikiaren aurkezpena; zinemagintzan, "Lau haizeetara" film laburren emanaldia; azkenik, maila orokorrean, Geuretik Sortuak egitasmoaren hirugarren edizioko uzta biltzen duen erakusketa.

HIRUGARRENA.- UDALBILTZA PARTZUERGOAK betebeharrak hartzen ditu:

3.1. Geuretik Sortuak proiektuaren 3. edizioaren sormen, ekoizpen eta hedapen dirulaguntzen deialdiak eta kudeaketa bere gain hartzea.

3.2. "Geuretik sortuak" proiektuaren baitan Astigarragako Erribera kulturgunean eskainiko dira: Izeba Txirrita (Zelako kultur ideiak), Frankopoleon (KulturarteCo konpainia), Kolapsoa (Jon Ander Urresti eta Matxalen de Pedro) eta Promesarik txikiena (Infinitudrama konpainia) antzezlanak, Nahia Arantzamendiren "Kafe asko eta ona" ipuinaren aurkezpena, Eneritz Ibarraren "Begi hütsez ezin ikusi" komikiaren aurkezpena eta "Lau haizeetara" film laburren emanaldia. Horrez gain, erakusketa ere jasoko du Astigarragak.

3.3. Dirulaguntzaren udal ordenantzaren 21. artikuluan adierazitakoa betetzea, hala nola: diru ekarpena dirulaguntzaren xederako erabiltzea, dirulaguntza zuzentzea, beharrezko baimenak eskatzea, udalaren ikuskaritza onartzea, hizkuntza eta berdintasun irizpideak betetzea, aldaketa esanguratsuen berri ematea.

3.4. Udalbiltza partzuergoaren ardura izango da ekintza bideratzeko beharrezko giza baliabideak jartzea; eta nolahi ere, indarrean dagoen legeria betetzea.

3.5. 2027ko urtarrilaren 15a baino lehenago, dirulaguntza justifikatzea, gutxienez, dokumentu hauek aurkeztuz:

- Diruz lagundutako ekintzen gastuen eta diru sarreraren balantzea, eta horren inguruko erantzunkizuneko ziurtagiria.
- Gastuen nahiz ordainketen ziurtagiriak, gastutzat hartuko baitira orainduak izan direnak zuriaketaren epealdia bukatu aurretik.
- Udalak emandako zenbatekoaren erabileraren inguruko erantzunkizunpeko adierazpena.
- Laguntza ekonomikoaren ondorioz sortutako jardueran egindako azterlan, programa, argitalpen, iragarki-kartel edo dokumentazio grafiko eta idatzi guztiaren ale bat.

3.6. Jasotako zenbatekoak itzultzea, dagozkion atzerapen interesekin, Dirulaguntzen Lege

Orokorren 37. artikuluan araututako kasuetan, bai eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren edota hitzarmen honetan jasotako baldintzak ez betetzeagatik.

3.7. Hitzarmen honetan hitzartutako lankidetzak eta betetze mailaren jarraipena egiteko udalak eskatutako bilerak egitea eta informazioa ematea. Udalak horrela eskatuz gero, Udalbiltza partzuergoak ezingo dio uko egin.

LAUGARRENA.- Udalaren betebeharrak hauek izango dira:

4.1. Onartutako dirulaguntza ordaintzea. 23. artikuluan jasotakoaren arabera, hau da, laguntzaren aurrerakin gisa onartutako zenbatekoaren %70aren ordainketa bideratuko da dirulaguntzaren onarpenarekin batera eta gainontzeko %30a, 24. artikuluan jasotakoa betetzen denean.

4.2. Kulturgileei beren emanaldiak jendaurrean erakusteko Erribera kulturgunea, bertako ekipamendua eta teknikarien zerbitzua eskaintzea.

4.3. Hitzarmen honen baitan burutuko diren jardueren informazioa zabaltzea.

4.4. Diru itzulketen espedienteak izapidetzea udal ordenantzaren 26 eta 27. artikuluen arabera.

4.5. Hitzarmen honetan jasotakoak ez betetzea arau haustetzat jo daitekeenean (*Dirulaguntzaren Udal Ordenantzaren 28. artikuluen arabera*) zehapen espedienteak izapidetzea ordenantzaren 29 eta hurrengo artikuluei jarraiki.

BOSGARRENA.- Udalaren dirulaguntza bateragarria izango da beste erakunde publiko edo pribatuak xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, elkarteak dirua itzuli egin beharko luke.

SEIGARRENA.- Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta bere interpretazioan eta garapenean dirulaguntzei aplikagarria zaien administrazioaren ordenamendu juridikoa aplikatuko da.

Interpretazio hori egitea, Astigarragako Udalari dagokio eta horrek hartutako erabakiek amaiera emango diote bide administratiboari eta hartzen diren unetik bertatik bete beharrekoak izango dira.

ZAZPIGARRENA: Hitzarmen honetako alde biek hartzen dituzten betebeharrak edo erantzukizunak, eta elkarrengandik dituzten eskubideak, eta hitzarmen honetan aurreikusten edo jasotzen ez den guztietarako, honako legeria aplikatuko da:

1. Apirilaren 2ko Toki Korporazioetako Oinarri arautzailearen 7/1985 zenbakidun Legea eta apirilaren 18ko erregimen lokaleko arauak biltzen dituen 781/1986 zenbakidun Testu Bateratua, beti ere Kontratu Legean ezarritakoaren aurka ez baldin badoa.
2. Herri Administrazioetako Dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legea.
3. Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinen bitartez dirulaguntza orokorrak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 legearena erreglamentua onartzen dena.
4. Dirulaguntzen Udal Ordenantza (*ordenantza eskura dago udalaren webgunean: <https://www.astigarraga.eus/eu/beste-ordenantza-batzuk>*)
5. Honetaz gain, zuzenbide administratiboko arauak eta bere kasuan zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

ZORTZIGARRENA: Hitzarmen honetatik sortzen diren auziak administrazioa auzigaietarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira.

Horrela jaso dadin eta ados daudela adierazteko hitzarmen hau sinatu dute hasieran adierazitako lekuan eta datan.

Haritz Alberdi Arrillaga
Udalbiltza Partzuergoa

Xabier Urdangarin Lasa
Astigarragako Udala

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Hitzarmena GS Udalbiltza-Astigarrada 2026

Sinatzailea 1 / Firmante 1: 72444234F HARITZ ALBERDI (R: Q2000578A)

Lehendakaria

Data / Fecha: 2026/06/04 09:10:44



EKS | CSV: ESKUdc532ab1-37ff-4c5c-a60d-ab51aec0bbe2

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=08410>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=08410>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026KHTZ0012-Udalbiltza hitzarmena/Udalbiltza hitzarmena (CONSORCIO UDALBILTZA)

Digitalki sinatua:



Astigarragako Udala

URDANGARIN LASA XABIER

ALKATEA

Data: 2026/06/05 13:47:43

